



Bertso saio bikoitzarekin abiatuko dituzte festak

Jai batzordea biziberritu osteko egitaraua prestatu dute Ibaetako jaietarako. Bihar hasi eta datorren asteburura bitarte luzatuko dira, adin tarte guztientzako jarduerekin. Dagoeneko zain dute aingerua.

✦ Inaxio Esnaola Aranzadi

Goian hasten dira Ibaetako jaiak, Aingeru Zaindariaren ermita inguruan. Behera ere jaitsiko diren arren, festa giroa maila gorenean mantendu nahi dute. Horretarako, zortzi eguneko egitaraua prestatu du jai batzordeak. Berritasun nagusiak, berriz, bi izango dira. Batetik, martxoaren leku Aingeru Zaindariaren eguneko bertso saio bikoitza, eta, bestetik, mus txapelketa azkarra.

Meza, salda, erromeria, dantza, bertsoak, jan-edana... eta festa. Horrela abiatuko dira etzi Ibaetako jaiak, bezperan Arrikitaun tabernan egingo duten beroketa andaluziarren ondoren. Beste urtebetez, eguerdiko bertso saio klasikoa ez da faltako ermitaren alboan, laukote are klasikoagoarekin. Beñat eta Unai Gaztelumendi anaiak Sebastian Liza-sorekin eta Andoni Egañarekin ariko dira kantuan. Eguneko lehen saioa izango da, baina ez azkena.



ilarra

Ilarra leku bat baino gehiago da: berotasuna, lotura eta oroitzapenak dira. Hemengoa, tradizioa eta modernitatea batzen dira pertsonak, historiak eta une gogoangarriak ospatzeko.

Zatoz eta bizi esperientzia ahaztezinak zuretzako sortuta dagoen txokotan.

Illarra bidea, 97, 20018, Donostia · 943-45 40 90 · www.ilarra.com

Lukainkategi jatetxea

Aingeru Zaindaria Bidea, 85
20018 Donostia, Gipuzkoa

943-37 14 44

Ondo pasa jaiak!

«Lehen aldiz, bigarren bertso saio bat antolatu dugu», nabarmendu du Eider Irazabalbeitia jai batzordeko kideak. Hau, ordea, Lautximeneta frontoian izango da. «Igandea izanik, eguna luzatzea erabaki dugu, eta herri kirolen jaialdia astebete aurreratzea. Horrela, bigarren bertso saioa ikusi nahi dutenek aizkolarien eta harri jasotzaileen desfioez gozatzeko aukera izango dute», azaldu du Irazabalbeitiak.

Mus azkarra eta zinta lasterketa

Jaietako ostirala da famatuena. Hain zuzen ere, martxoaren 6ko programak nobedade erakargarri bat izango du: mus txapelketa azkarra lau erregetara. «Aratz erretegiak antolatu ohi zuen, eta egitarauan sartzea erabaki dugu. Halere, Illarra Berri elkartearen egingo dugu, eta espero dugu harre-
ra ona izatea», dio Irazabalbeitiak. Auzoko helduei eta adinekoei begira antolatu dute.

Ostiraleko jarduera ikusgarriena, berriz, beste bat izango da: «Zinta lasterketan parte hartzea jende asko etortzen da beste auzoetatik. Horretarako, bizikleta bat eta boli-grafo edo makil bat behar da. Uztai batzuk jartzen ditugu egurrezko langa batetik zintzilik, eta horietan sartu behar da. Sari potoloak eskura daitezke; bazkari bat edo komuneko papera». Goizaldean izanik, istripu bat edo beste gertatzen dela aitortu du Irazabalbeitiak.

Martxoaren 7an, berriz, harrera ona izan ohi duen krosa egingo dute, arratsaldean. Parte hartzen duten auzotek Aingeru Zaindariaren ermitaraino igo beharko dute. Txokolate eta sardina jana ere egingo dute, danborrada herrikoiarekin batera. Eguna borobiltzeko, rock kontzertua antolatu dute Lautximeneta frontoian. «Hiru talde on ariko dira zuzenean: Ezpallak, Udda eta Bide Batez. Ondoren, La Fulana DJ-a izango dugu, berriz ere.

Pasa den urtean, oso gustura ibili zen jendea berarekin, eta errepikatzea erabaki dugu», esan du Irazabalbeitiak.

Martxoaren 8an eta 9an borobilduko dituzte Ibaetako jaiak, nahiz eta herri kirolen jaialdia aurreratzeak egitaraua murriztu. «Ondorioz, Ibai ikastolako haurren Dantzaokoa izango da jaietako azken jarduera», dio jai batzordeko kideak. Eskolarteko haur krosa, patata tortilla lehiaketa eta sagardo dastaketa ez dira faltako.

Gazteak gogotsu

Ibaetako jai batzordea gaztetzen ari da urtetik urtera. «Baita biziberritzen ere», esan du Irazabalbeitiak: «Jai batzordera sartu berri diren auzoko gazteek 16-17 urte dituzte, eta oso gogotsu daude ekarpenak egiteko. Horrela ere, oraindik heldu eta adineko asko daude jai batzordean. Zaharrenak 70 urtetik gora ditu. Adin tarte zabal horrek aukera ematen digu egitaraua orekatzeko». ●



Portuetxe Kalea, 53,
20018 Donostia, Gipuzkoa



Ondo pasa jaiak!



943-316784 687-04 05 20

Ibaetako Jaiak alaitasunez ospatu!



SANTO TOMAS
LIZEOA



LARUNBATA 28

20:00

Sorpresak Andaluziaren eguneko ospakizunean, Arrikitaun tabernan.

IGANDEA 1

11:00

Meza, Aingeru Zaindariaren ermitan.

12:00

Salda, ermita parean.
Estanga trikitilariak, ermita parean.

12:15

Amassorrain ikastolako dantzariak, ermita parean.

12:45

Bertso saioa: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Unai Gaztelumendi bertsolariak, ermita parean.

17:00

Herri kirol jaialdia, Lautximeneta frontoian.
Arkaitz Etxebeste eta Ugaitz Mugerza aikolariak eta Udane Ostolaza eta Lierni Osa harri jasotzaileak. Bestalde, enbor mozketak, harri jasotzeak, trontza, txingak eta agurra.
Esataria: Fausto Mugerza.

19:00

Bertso saioa, Lautximeneta frontoian: Sebastian Lizaso, Unai Gaztelumendi, Nerea Ibarzabal eta Aner Peritz.
Gai jartzaila: Amaia Agirre.

ASTEARTEA 3

20:00

Afari herrikoia, Aratz erretegiaren.
Txartelak 40 euro balio ditu.

OSTEGUNA 5

19:00-23:00

Ipaeta festa. DJak eta giro paregabea, Gross garagardotegian.

OSTIRALA 6

17:30

Buruhandiak eta Oria txaranga.

18:00

Txokolate jana.

19:00

Mus txapelketa azkarra lau erregetara, Illarra Berri elkartearen.
Izen-ematea 17:30-18:15 artean, 20 euro bikoteko. Plazak bete arte.

22:00

3ttu erromeria.
Ondoren, Mojito & Patxaran DJak.

El Vaskito

**ONDO PASA
JAIETAN!**



Igara bidea, 33 - 20018, Donostia · 943-35 87 78 · info@elvaskito.com

01:30

Koxkortuentzako zinta lasterketa (18 urte eta askoz gehiago bete dituztenentzat). Ezinbestekoa da bizikleta ekartzea.

LARUNBATA 7

12:00

Haurrentzat ikuskizuna: *Cia. Ni Mu: Pausa*.

17:00

Haurrentzako jolasak.

Krosa. Aingeru Zaindariaren ermitara igoera (izena emateko: Herrikrosa.eus).

18:00

Buruhandiak eta Oria txaranga.

18:30

Txokolate jana.

19:30

Taberna Sua jatetxeak zuzeneko musikaz girotutako sardina jana eskainiko du.

21:15

Danborrada herrikoia, auzoan zehar.

22:30

Musika emanaldia: Ezpalak, Udda eta Bide Batez taldeak, Lautximeneta frontoian. Ondoren, La Fulana.

IGANDEA 8

10:30

Diana eta dultzaineroak.

Toka eta bote txapelketa (izena emateko epea: 11:30).

11:00

Eskolarteko haur krosa, Errotaburun.

12:30

Patata tortilla lehiaketa (izena emateko epea: 12:00).

12:45

Sagardo dastaketa.

18:00

Dantzaokea gaztetxoentzat, soilik euskarazko abestiekin.

ASTELEHENA 9

Egun osoan zehar

Umeen eguna, Aitor Zabaleta plazan. Feriak prezio herrikoiekin.





Disfrutatu eta gozatu gure jaietan! Gora Ibaetako jaiak!

Igara Bidea, 15, 20018 Donostia, Gipuzkoa Tel.:943-21 92 04